



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 82. INFORMAZIO BULETINA

2013ko Urria



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > Urrats gehiago eman dute Europako Kohesio Politikaren erreforma behin betikoz onartzeko

Europako Parlamentuko Eskualdeko Gaietarako Batzordeak Kohesio Politikaren erreformaren eta Europako Egitura eta Inbertsio Funtsetarako arau komunak ezartzearen inguruan egin duen bozketaren ondoren, Eskualde Politikako Europako komisarioak, Johannes Hahn-ek, honako behar hau adierazi du: Europako Parlamentuak eta kide diren estatuek 2014-2020 aurrekontua baieztatu behar dute, horri esker, Europako Kohesio Politikaren programazio-aldi berria has dadin.

Europako 2014-2020 Kohesio Politikaren erreformaren funtsezko elementuak honako hauek dira:

1. Inbertsioa EBko eskualde guztietan eta laguntza maila eta Estatu bakoitzeko ekarpena (elkarren arteko finantzaketa-tasa) garapen mailaren arabera egokitzea.
2. Baliabideak oinarritzko hazkunde-sektoreetara bideratzea: Eskualde Garapeneko Europako Funtsetan (EGEF) baitan egindako inbertsioak gai hauetan pilatuko dira eskualdearen kategoriaren arabera: berrikuntza eta ikerketa, agenda digitala, ETE-ei eta karbono-igorpen gutxiko ekonomiari babesa ematea. Karbono-igorpen baxuko ekonomiari dagokionez, EGEFko baliabideak esleitzeko beste betebeharrak batzuk daude.
3. Helburu eta xede argiak, gardenak eta zenbatzeko modukoak direnak zehaztea erantzukizuna eta emaitzak bultzatze aldera: helburu horiek lortzeko aurrera egiteak funts gehiago ekarriko luke (eragingarritasun-erreserba).
4. Funtsak ordaindu aurretik bete beharreko baldintzak aurretik bideratu behar dira inbertsio eragingarriagoak bermatzeko (espezializazio adimentsuko estrategiak, enpresaren aldeko erreformak, garraio-estrategiak, kontratazio publikoko sistemak hobetzeko neurriak, ingurumen arloko legeria betetzea...).
5. Marko Estrategiko Komuna aplikatzea. Koordinazio handiagoa eta proiektuen arteko gainjartze txikiagoa lortzeko estrategia komuna da. Gainera, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsetan artean koordinazio hobea lortzeko oinarriak finkatzen ditu. Gainera, beste tresna batzuekin loturak hobetzea ahalbidetzen du: Horizon 2020, "Konektatu Europa" izenekoarekin, adibidez.
6. Izapidetze burokratikoak murriztea eta Europar Batasuneko inbertsioen erabilera soiltzea.
7. Politikaren hiri-dimentsioa hobetzea EGEFren baitan baliabideen gutxiengo kopurua derrigor esleitura. Baliabide horiek hirietan txertatutako proiektuetara eta hiri eremuetako beste gastu batzuetara zuzenduta daude.
8. Mugaz gaindiko lankidetzak sendotzea eta mugaz gaindiko proiektu gehiago sortzeko prozesua soiltzea.
9. Ingurune ekonomiko zabalenak EBko inbertsioen inpaktua ez duela murriztuko bermatzea: (baldintza makroekonomikoak). Azken baliabide gisa, gainera, funtsak eten ahal izango lirateke gomendio ekonomikoak modu larrian eta behin eta berriro beteko ez balira.
10. Finantza-tresnen erabilera handiagoa bultzatzea ETE-ek kredituarekin lotutako sarrera eta laguntza handiagoa izan dezaten (maileguak, bermeak, bere kapitala/arriskua...).

Informazio gehiago:

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_SPEECH-13-892\\_en.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_SPEECH-13-892_en.htm)

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_MEMO-13-878\\_en.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-13-878_en.htm)



### > 42 proiektu aukeratu dituzte Akitania-Euskadi 2013 Euroeskualdeko 2013ko deialdian

Akitania-Euskadi Euroeskualdeko Batzorde Betearazleak argitaratu du Akitania-Euskadi 2013 deialdiaren baitan aukeratutako proiektuen zerrenda. Horren aurrekontua 900.000 €-koa da.

2013ko hautaketari esker, lankidetzak babestu eta sendotu ahal izan dituzte gai hauen inguruan besteak beste: eraikuntza jasangarria, material berriak, basoa, mahastizaintzako eta ardogintzako sektorea (taninoak, biodinamika...) eta energia berriztagarriak. Horrekin lotuta, etorkizunera begira, "lehia mailako gunek" eraiki dituzte itsasoko energien eta energia-autonomiaren esparruetan, besteak beste. Enpresen zerbitzura dagoen berrikuntzaren euroeskualdeko estrategia bultzatzearen aldeko apustua ere egin dute. Horretarako, Akitaniako eta Euskadiko klusterrak sarean jarri dituzte eta interclustering izeneko garatu dute. Era berean, nekazaritzako (artzaintza, nekazaritza biologikoko auto-ebaluazioko tresnak...), nautikako, turismoko eta abarretako proiektu egituratzaileak aukeratu dituzte.

Lehentasuna eman zaio gazteen mugigarritasunari lizeoen, prestakuntzako ikasleen eta abarren arteko truke-proiektuen bidez. Babestutako proiektuen artean, era berean, azpimarratu beharrekoak dira hauek: diziplina anitzeko kultur sorkuntza (dantza, antzerkia, musika...) eta eskualdeko hizkuntzen eta ingurumenaren sustapena (itsasoko kutsaduraren prebentzioa, animalien bioaniztasuna babestea...).

*Informazio gehiago:*

<http://www.aquitaine-euskadi.eu>



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Urria

## > Zabalik da mugaz gaindiko enpresa-ekimen onenari ematen dioten eKOP sarirako hautagaitzak aurkezteko epea

Euskal Hiriko Mugaz gaindiko Agentziak (Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Bidasoa-Txingudi Partzuergoak, Hegoaldeko Udalerrien Komunitateak eta Euskal Kostaldea - Adour Barrutiak osatzen dute), Bihartean mugaz haraindiko Merkataritza Ganberarekin eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiarekin elkarlanean, Mugaz gaindiko Enpresa Ekimen Onenari ematen zaion eKOP Sariaren 2. ediziorako deialdia egin du.

eKOP sariaren helburua mugaz gaindiko lankidetzan lan egiten duten eragile ekonomiko dinamikoenak aitortzea da, lankidetzak hori jarduera ekonomikoa sortzen eta berritzen duen lankidetzak gisa den heinean.

eKOP sariaren deialdian helburu ekonomikoak dituzten eta kultura, zientzia, unibertsitate, nekazaritza, ekonomia eta ingurumen arloan egindako proiektu puntualek edo ohiko ekintzek har dezakete parte. eKOP sarira aurkeztutako hautagaitzek, ezinbestean, mugaz gaindiko lankidetzak-ekimenak jaso behar dituzte eta mugaz gaindiko lurraldearen alde esku hartu behar dute.

Hautagaitzak 2013ko urriaren 29tik abenduaren 17ra bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Sari-banaketa urtarrilaren amaieran egingo dute eta Europako beste muga batzuetako esperientzien ezagutzari eta lanari buruzko hitzaldiarekin batera egingo dute.

*Informazio gehiago:*

<http://www.eurociudad.org/index.php?id=85>



## KOHESIO-POLITIKA

### > Europako funtsek kofinantzatutako esku-hartzeetan emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa modu praktikoan aplikatzeari buruzko jardunaldia egin dute

"Emakume eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren aplikazio praktikoa Europako funtsek kofinantziatutako esku-hartzeetan" izenburua zuen topaketa irailaren 30ean egin zuten Bilbon. Bertan, komunitateko finantzaketa jaso duten ekintzak bideratzeko faseetan lan egiten duten berrogeita hamar lagun baino gehiago bildu ziren.

Emakumearen Institutuak Emakunderekin eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzarekin batera antolatutako jardunaldiari esker, bertaratutakoek 2007-2013 programazio-aldiko eta datorren aldirako aurrez ikusitako aukera-berdintasun arloko oinarri teorikoak eta betebeharrak ezagutu ahal izan dituzte. Horrez gain, gizon eta emakumeen egoera bereizlea aztertu ahal izan dute funtsen esku-hartze eremu ugarien inguruan (bereziki, EGEF eta EGIFenak).

Informazio gehiago:

[https://www.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica\\_regional/es\\_2340/adjuntos/europa\\_noviembre\\_2013\\_2.pdf](https://www.euskadi.net/r51-19239/es/contenidos/informacion/politica_regional/es_2340/adjuntos/europa_noviembre_2013_2.pdf)



### > Eskualdeetako berrikuntzarako politikek abantaila lehiakor iraunkorrak sortzen duten zeregina aztertu dute Donostian egin duten nazioarteko biltzar batean

RIP, Regional Innovation Policies 2013 Nazioarteko biltzarra egin zuten Donostian urriaren 10ean eta 11n. Akademikoek, politikak egiteaz arduratzen direnek eta profesionalak eskualdeetako berrikuntza-politikek abantaila lehiakor iraunkorrak sortzen duten zeregina aztertu dute.

Claire Nauwelaers ikerketarako eta berrikuntzarako eskualdeetako sistemen funtzionamenduan espezialista da eta hark ere espezializazio adimentsuaren analisia landu zuen, baina mugaz gaindiko lankidetzaren ikuspuntutik. Mugak berrikuntzarako oztopo ez, baizik aukera bihurtzen dituzten gertutasunari eta dibertsitateari buruz aritu zen eta arlo horretan lankidetzan aritzearen konplexutasuna ere azaldu zuen.

Biltzarreko programa 3 osoko saiok eta beste bost saio paralelok osatu dute. 77 lan aurkeztu dituzte guztira gobernantzari eta ebaluazioari, jakintzaren azpiegiturei edo espezializazio adimentsurako estrategiei eta kapital sozialari buruz. Alemaniatik, Danimarkatik, Espainiatik, Norvegiatik, Poloniatik, Portugaldik, Erresuma Batutik, Errusiatik eta Suediatik etorri diren berrikuntza-politikekako 90 adituk aurkeztu dituzte lan horiek.

Espezializazio adimentsurako estrategiak (*Smart Specialisation*) izan dira gai nagusia biltzar osoan. Hori horrela, hizlari gonbidatu bat ere izan da bertan, Kevin Morgan, Europako Batzordeko espezializazio adimentsuari buruzko adituen taldeko kidea, hain zuzen. Politiken arloan ikasteari buruz ere aritu dira biltzarrean, kluster-politikean eta eskualdeetako berrikuntza-politikean zerk funtzionatzen duen eta zergatik ikasteko.

*Informazio gehiago:*

[https://sites.google.com/a/orkestra.deusto.es/rip\\_2013/programme](https://sites.google.com/a/orkestra.deusto.es/rip_2013/programme)



> 2013ko Urria

### > **Batzordea estatu-kideekin lankidetzan ari da Gazte Bermea ekimena abian jartzeko**

*Gazte Bermea* programa Europako Batzordearen ekimen berri bat da. Helburua gazteen langabeziaren aurka egitea eta 25 urtetik beherako gazte guztiak, enplegu-zerbitzuetan izena emanda daudenen eta ez daudenen, prestakuntza amaitzen edo langabezia-aldia hasten dutenetik zenbatzen hasita 4 hileko epean eskaintza zehatz eta kalitatezkoa jasotzea bermatzea da. Eskaintza hori lan bat, praktika-aldi bat, enpresa batean egiteko prestakuntza edo ikaskuntza-zentro bateko ikastaro bat izan daiteke eta bakoitzaren behar eta egoerara egokituta egon beharko du. Europar Batasuneko herrialdeek 2013ko apirilean babestu zuten *Gazte Bermearen* printzipioa.

Ekimen hori sustatzeko, Europako Batzordeak eta estatu kideek bilera egin zuten urrian, Batzordeak Belgikan antolatutako mintegi batean.

*Informazio gehiago:*

<http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=1079&langId=en>

### > **Europako herrialdeetako administrazio-kontseiluetan % 16,6ra iritsi da emakumeen presentzia**

Europako Parlamentuko Gai Juridikoetako Batzordeak eta Emakumeen Eskubideen eta Genero Berdintasunaren aldeko Batzordeak proposamen bat onartu diote Europako Batzordeari, Europako enpresetako administrazio-kontseiluetan generoaren aldetik dauden desorekak konpontzeko. Proposamenaren helburua 2020rako enpresa kotizatu eta publikoetako administrazio-kontseiluetako kide ez-exekutiboetan emakumeak % 40 izateko gutxieneko helburua ezartzeko lege-proiektua onartzeko prozesuan urratsak ematea da.

Proposamenaren bozketarekin batera Europako enpresetan emakumeek erabakiak hartzeko postuetan duten presentziari buruzko beste txosten bat aurkeztu da. Txosten horren arabera, azken datuek (2013ko apirila) erakusten dute administrazio-kontseiluetan % 16,6 igo dela emakumeen proportzioa (2012ko urrian % 15,8koa zen).

Herrialdeka begiratuta, 20 estatu kideetan igo da enpresetako administrazio-kontseiluetako emakumeen proportzioa. Igoera handienak Eslovakian, Hungarian eta Bulgarian izan dira. Aldiz, administrazio-kontseiluetako emakumeen proportzioa txikitu egin da Errumanian, Lituanian, Polonian, Maltan, Grezian, Portugalen eta Erresuma Batuan.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/justice/gender-equality/files/gender\\_balance\\_decision\\_making/131011\\_women\\_men\\_leadership\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/justice/gender-equality/files/gender_balance_decision_making/131011_women_men_leadership_en.pdf)

[http://ec.europa.eu/justice/gender-equality/files/strategy\\_women\\_men/131011\\_mid\\_term\\_review\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/justice/gender-equality/files/strategy_women_men/131011_mid_term_review_en.pdf)



### > **BEZaren aitortena egiteko eredu sinplifikatzeko eta bateratzeko proposamen berria egin du Batzordeak**

Europar Batasuneko 28 estatu kideetan BEZaren aitortena egiteko ereduak bateratzea eta sinplifikatzea proposatu du Europako Batzordeak. Batzordearen kalkuluen arabera, eredu bakarra erabiltzeak urtean 15.000 milioi euro aurrezteko modua emango die enpresei. Ekimenaren helburua, beraz, Europar Batasun osoan enpresen izapide burokratikoak murriztea eta zerga-betebeharrak errazago betetzea eta zerga-administrazioak eraginkorrago egitea da.

Batzordeak araudi adimentsua ezartzeko hartu duen konpromisoaren harira egin du proposamen hau eta arauak sinplifikatzera eta enpresek dituzten zama administratiboak murriztera bideratutako REFIT programa berriaren parte da.

Proposatutako eredu berriak nahitaez bete beharreko bost eremu bakarrik izango ditu (BEZ galdagarria, BEZ kengarria, BEZ garbia, diru-sarreraren balioa guztira, gastuen balioa guztira), eta estatuek dokumentua hedatu ahal izango dute, gehienez 21 eremu gehiago erantsita. Guztira, 26. Batzordeak aitortenen bidalketaren maiztasuna bateratzea ere proposatu du. Hilabetekoa izango litzateke maiztasuna eta hiru hilean behingoa izateko ere aukera izango lukete enpresa txikiek eta ertainek (urtean 2 milioi euro baino gutxiago).

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/taxation\\_customs/resources/documents/taxation/vat/key\\_documents/legislation\\_proposed/com%282013%29721\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/taxation_customs/resources/documents/taxation/vat/key_documents/legislation_proposed/com%282013%29721_en.pdf)





## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > **Adimentsuagoa, berdeagoa, integratzaileagoa? 2020 Estrategiari laguntzeko Eurostaten tresna estatistiko berria**

Europar Batzordearen Eurostat estatistika-bulegoak 2020 Estrategian egindako aurrerapenen analisi estatistikoaren argitalpen berri bat aurkeztu du.

Txosten berriak Europa 2020 Estrategia kontrolatzeko datu estatistikoak eman ditu eta, horretarako, Europako strategiaren adierazle nagusiei jarraipena egiten zaie. Era berean, ekimen nagusiekin lotutako gaiei buruzko beste adierazle batzuk ere bildu ditu txostenak, baita azpian dauden joerei buruzkoak ere, horiek ezagutzeak analisia sakontzeko eta ikuspegi zabalagoa izaten lagun baitezake.

Argitalpenak 2000-2005erako aldia eta datuak eskuragarri dauden azken urterainoko aldia (2011 edo 2012) hartzen du.

*Informazio gehiago:*

[http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-02-13-238/EN/KS-02-13-238-EN.PDF](http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-02-13-238/EN/KS-02-13-238-EN.PDF)

### > **HORIZON 2020 webgune berria. Ikerketarako eta Berrikuntzarako Europar Batasuneko Esparru Program**

Azaroaren erdialdera, eta Europar Batasunaren Espainiako Ikerketarako eta Berrikuntzarako Europar Batasuneko Esparru Programaren 7. Batzarraren harira, HORIZON 2020, Ikerketarako eta Berrikuntzarako Europar Batasuneko Esparru Programaren webgunearen Espainiako bertsioa aurkeztu dute.

Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroak (CDTI) eta Zientzia eta Teknologiko Espainiako Fundazioak (FECYT) webgune hau sortu dute Esparru Programa berrian parte hartzea errazagoa izan dadin.

*Informazio gehiago:*

<http://eshorizonte2020.es/>



### > **Hazkundeari buruzko Urteko Aurrera Begirako Azterlanak iragarri du 2014ko lehen sei hilekoan suspertzea sendotuko dela**

Europako Batzardeak onartu duen *Hazkundeari buruzko Urteko Aurrera Begirako Azterlanaren arabera*, Europako ekonomiaren une honetako erronkarik handiena abian den suspertzea sendotzeko modua bilatzea da.

Azterlanak erakutsi du estatu kideak nola ari diren indartu berria den koordinazio ekonomikorako prozesura egokitzen Sei hileko Europarraren testuinguruan eta nola ari diren lankidetzaz hobetzen arau komunen arabera.

Erronka hori gogoan hartuta, Batzardeak hazkundearen eta enpleguaren aldeko estrategia orekatuari eusten dio eta datorren urterako bost lehentasun nagusiak ondorengo hauek ditu:

- Hazkundera sustatuko duen aurrekontu-onbideratze bereizgarria egiten jarraitzea.
- Ekonomiari mailegu-baldintza arruntak berreskuratzea.
- Une honetako eta etorkizuneko hazkundera eta lehiakortasuna sustatzea.
- Langabeziaren eta krisiaren ondorio sozialen aurka egitea.
- Administrazio publikoa modernizatzea.

Aurrera Begirako Azterlanak Sei hileko Europarra sakontzeko moduari buruzko gomendioak ere bildu ditu. Horien artean aipagarriena herrialde bakoitzerako gomendio espezifikoak herrialde bakoitzak bere gain hartzea indartzeko beharra da eta horretarako, estatu kideek lortu behar dute parlamentu nazionalak, solaskide sozialek eta herritarrek prozesuan hein handiagoan parte hartzea, funtsezko erreformak ulertuak eta onartuak izan daitezzen. Euroguneko estatu kideek denbora gehiago eskaini behar diote erreforma handiak koordinatzeari horiek nazio mailan ezarri aurretik, batez ere, lan- eta produktu-merkatuetan. Ere berean, herrialde bakoitzari urtero udaberrian ematen zaizkion gomendio espezifikoak hobeto aplikatu behar dituzte.

*Informazio gehiago:*

[http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-13-1064\\_en.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-13-1064_en.htm)



### > **COSME aurkeztu dute, enpresa txiki eta ertainetan enplegua sortzeko eta hazten laguntzeko Europako programa**

COSME programak 2.500 milioi euroko aurrekontua du 2014-2020 aldirako, enpresa txiki eta ertainei enplegua sortzen eta hazten laguntzeko. Europako enpresentzako programa espezifikoa da, eta enpresa txikiek, ertainek eta mikroenpresek finantzaketa lortzeko baliabideetan igoera handia ekarri du. Horien artean dira kreditu-bermeak eta arrisku-kapitalari lotutako tresna espezifikoak.

COSME programaren helburu nagusiak ondorengo hauek dira:

- Europar Batasuneko enpresen lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzea, batez ere, sektore turistikokoena.
- Ekintzaile-izaera sustatzea (enpresak sortzea, ekintzaile berriak gazteak eta emakumeak lehenetsiz).
- Enpresa txikiei eta ertainei finantzabidea lortzeko bidea erraztea, bi tresnaren bidez: Arrisku-kapitalaren funtsa (partaidetza-maileguak) eta mailegu-bermeak emateko funtsa.
- Europar Batasunaren barruko eta mundu osoko merkatuetarako sarbidea hobetzea

2014-2020 aldirako, Batzordeak 2.500 milioi euro inguru eskainiko dizkio COSME programari. Gainera, Europako Kontseiluak badu mahai gainean Batzordearen proposamen bat eta proposamen horrek hiru aukera ematen ditu Europako Inbertsio Bankuko, COSMEko eta Egitura Funtsetako funtsekin programa handi bat sortzeko, horrela, enpresa txikiek eta ertainek kreditua errazago eskura dezaten. 10.000 milioi eurotik gora mugituko lirateke eta horien bidez, 100.000 milioi euro arteko igoera lortzeko aukera izango litzateke.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/enterprise/initiatives/cosme/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/enterprise/initiatives/cosme/index_en.htm)



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

### > Zerga-erreformak kide diren estatuetan, 2013 (Europako Batzordea)

Txostenak biltzen ditu Europar Batasuneko estatu kideetan 2012an eta 2013aren lehen erdian aplikatutako zerga-erreformak. Bigarren zatian, zerga-sistemak hobetzeko estatu kideetako zerga-politikaren hainbat erronka hautatu aztertzen ditu txostenak. Erronka horien baitan daude zergek finantza publikoak onbideratzeko eta gastuak kontrolatzeko egin dezaketen ekarpena eta zerga-egituraren erabilera areagotzea. Oso alderdi garrantzitsuak dira horiek hazkunde txikiko eta sendotze fiskaleko uneetan.

Amaitzeko, txostenak zerga indibidualak diseinatzearekin eta zerga-betebeharrak betetzearekin lotutako erronka ekonomikoak ere aztertzen ditu.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/economy\\_finance/publications/european\\_economy/2013/pdf/ee5\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/economy_finance/publications/european_economy/2013/pdf/ee5_en.pdf)

### > 20 urte bete ditu Donostia-Baiona Eurohiriak

Bideo bat argitaratu dute mugaz gaindiko lankidetzarako protokoloa sinatu zutenetik hogeit hamar urte igaro direla ospatzeko. Protokolo hartatik sortu zen Euskal Eurohiria proiektua.

1993ko urtarrilean, Europar Batasuneko muga fisikoak desagertzearekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta orduko Baiona-Angelu-Biarritz Barrutiko arduradun gorenek akordio bat sinatu zuten eta sinatzaileek konpromisoa hartu zuten mugaren alde bateko eta besteko erakundeen arteko elkarlana sustatzeko. Lankidetzeta-proiektu haren helburua garai hartan merkatu bakarrak zekartzan erronkei erantzun egokia ematea zen Baiona-Donostia konurbazioa Europako hiri-sisteman lehiakor izan zedin.

Euskal Eurohiria Espainia eta Frantziaren arteko mugaren alde banatan eta Pirinioen aurrealde atlantikoan kokatuta dago eta Baiona eta Donostia lotzen dituzten 50 km-etako hiri-korridore bat da eta 600.000 biztanle biltzen ditu. Iberiar penintsularen eta Europako erdialde eta mendebaldearen arteko komunikabide naturala osatzen du.

*Informazio gehiago:*

<http://www.youtube.com/watch?v=LDjdDdmptC0>



### > **Banku-jarduera eskualdeko hazkunde ekonomikoa (Ekonomiaz)**

Ekonomiaz aldizkarian argitaratutako Carlos J. Rodríguez Fuentesen artikulua bat da. Banku-sistemaren funtzionamenduak eskualdeetara ekarritako ondorioei buruzko azterlanen laburpen bat da eta hor daude sartuta *finance-growth* harremanari buruzko azterlanaz arduratu diren ekarpen berriagoak ere.

Analisiaren helburua banku-erakundeek eskualdeetako hazkunde ekonomikokoan duten zeregina nabarmentzea da; eta ez informazio-asimetriak eta eskualdeko kreditu merkatuak segmentatzen dituzten merkatuko hutsegiteak izaten direlako bakarrik, baita erakundeen kreditu-estrategietan espazio/eskualde mailako aldeak daudelako ere, eta horrek eragin egiten dio eskualdeetako kredituaren eskaintzari eta eskuragarritasunari.

*Informazio gehiago:*

[www1.euskadi.net/ekonomiaz/downloadPDF.apl?REG=1282](http://www1.euskadi.net/ekonomiaz/downloadPDF.apl?REG=1282)